

Hezkuntza plazara!

Hemen bildu garen hezkuntza komunitateko kideok pandemiaren testuinguruan hezkuntzan bizi dugun egoeraz kezka eta premia larria gizarteratu nahi ditugu.

Baga

HEZKUNTZA
KOMUNITATEAREN
LANA AITORTU

lazko ikasturte bukaeran, sekulako astinaldia izan zen hezkuntzan Covid 19ak eragin zuena. Aurreikusi ezin genitzakeen egoerak, zailtasun berriak sortzeaz gain, hezkuntza-sistemek lehenagotik zituzten egiturazko arrakalak (sozioekonomiko, linguistiko, kultural, akademiko edo genero ikuspegikoak) azalarazi zituena. Hasteko, hezkuntza-komunitateak (langileak, ikasleak eta gurasoak) egindako lan izugarria eta ahalegina aitortu nahi dugu.

Biga

ADMINISTRAZIOEN
UTZIKERIA
SALATU

Udaran ikusi eta ikasitakoetatik, pasa diren hilabeteak tarteko, bestelako ikasturte hasiera bat espero zitekeen. Aurrez aurreko eskoletara itzulera hezkuntza komunitatea eta Hezkuntza administrazioaren artean landu eta adostu zitekeen, baina, ez da hala izan. Planifikaziorik eza pairatu dugu, oraindik ere inprobisazioa, baliabide nahikorik eza edota egiturazko arazoak bizi ditugu, osasuna eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko zailtasun handiak ditugu.

Higa

HEZKUNTZA
KOMUNITATEA
ERDIGUNERA

Haurrak, nerabeak, hezkuntza langileak eta gurasoak erdigunera.

- **Haurrak, ikasleak erdigunera.** Lehenik eta behin, haurrak, nerabeak, ikasleak ekarri nahi ditugu erdigunera. Haur eta ikasleok izan behar gara hezkuntza prozesuaren subjektu eta protagonista; gure bizitza eta heziketa lehenengo zaindu behar ditugunak. Zorritzarrez, gobernuen arau, dekretu eta ekimenetan objektu bezala tratatuak gara, gure papera arauak betetzera eta txintxoak izatera mugatzen delarik. Non gelditzen ari dira haurren eskubideak? Non gelditzen ari da ikaslearen hezkuntza eskubidea? Gobernuen eta hainbat ikuskariren irizpideak jarraituz gero txikienez zako dena da arriskua, asko da debekua, besarkadarik ez, jolasik apenas,... Osasun irizpideek osasun fisikoa dute ardatz bakar eta osasun emozionala baztertuta geratzen da.
- **Hezkuntza langileak erdigunera.** Zuzendaritzak eta Haur Hezkuntzako Koordinatzaileak kontingentzia planen arduradun egin gaituzte: formazio eta baliabide egokirik gabe, lan karga izugarriarekin. Hezkuntzako langileon bizkar (sukaldari, garbitzaile, espezialistak, hezitzaileak, irakasleak, jantokikoak, atezainak) ardura handia jarri da, horretarako baliabide aski eta formazioa behar ditugu.
- **Familiak erdigunera.** Gure seme-alaben osasun zein heziketa prozesuarekin kezkatuta gaude, noski baietz, nor egongo da bada gu baino arduratuago gure seme-alaben ongizateaz? Baina guraso gisa ere, gure behar eta arazoak ditugu, kontziliazio arazo larriak bizi ditugu, nola uztartu lana eta gure seme-alaben bizitza jangelarik ez badago? Seme alabak konfinatu behar izanez gero? Eskolaz kanpoko ekintzak bertan behera gelditzen badira? Zer gertatzen da arazo ekonomiko larriak dituzten gurasoekin? Non jango dute haurrek? Nork zainduko ditu gurasoak lanean bagaude? Non sozializatuko dira gure haurrak? Non ikasiko dute euskara eskolan ez bada?

Laga

HEZKUNTZA KOMUNITATEA
ETA HERRITARREI
DEIALDIA

Pandemiari aurre egin eta Euskal Herrian hezkuntza sistema aurreratua eraiki dezagun, minimoak eta urgentziak biltzen dituen Aldarrikapen Taula:

- **Baga, Biga, Higa gogoan hartu.**
- **Arrakalak gainditu, inklusioa bermatu.** Pandemiak areagotu dituen arrakala guztiak gainditzeko neurriak eta baliabideak behar ditugu (akademikoak, sozioekonomikoak, kulturalak, linguistikoak, generokoak, emozionalak) behar gehien duten ikastetxe eta kolektiboetatik hasita.
- **Eskolak auzoan eta naturan.** Osasun eta pedagogia ikuspegitik, hiri/herri/auzo mailako beste espazio publiko batzuen erabilera eta naturan ere hezte ahalbidetu behar da. Kontrola, oztopoak eta debekuak baino baliabideak, erraztasunak eta segurtasun juridikoa behar ditugu.
- **Haurren eskubideak.** Haurrak eskubide osoko herritarrak dira. Haur guztiak aintzat hartu eta zaintzeko kultura sustatzea aldarrikatzen dugu, hezkuntza eskubide unibertuala eta aukera berdintasuna bermatuz. Jolas liberako eskubidea, askatasuna, espazioak, ikaskuntza, esperimendazioa, sormena, pentsamendu kritikoa, autonomia, elikadura, baliabide pedagogiko eta digitalak, osasuna, etab. bermatu behar dira.
- **RATIOAK jaitsi.** Osasun zein arazo pedagogikoak tarteko, haurren-ikasleen ongizate osoan eta garapen integralerako baldintzetan ere eragin zuzena daukalako.
- **Langileak kontratatu.** Hezkuntza kalitatea bermatzeko langile askoz gehiago behar ditugu ikastetxeetan: garbitzaileak, jantokietako langileak, hezkuntza berezikoak, haur eskoletakoak, irakasleak, etab.
- **Jangelak ikasle guztiarentzat zabaldu.** Kontziliaziorako ez ezik, heziketarako espazio eta ikasle askoren elikadura bermatzeko lekua delako.
- **Zaintza eta kontziliazioa bermatu.** Haurren zaintzarako aurrez aurreko eskolak, eskolaz kanpoko ekintzak haur guztiarentzat eta gurasoentzat ordaindutako baimenak behar ditugu.
- **Eraldaketa pedagogikoa.** Metodologietan eta berrikuntzan urteetan emandako aurrera pausuak arriskuan daude. Eraldaketari eutsi eta aukera berrietan sakontzeko deia egiten dugu.
- **Euskararen erabilera eta euskal kulturaren transmisioa.** Ikasle gehienentzat euskara eta euskal kulturarekiko bizipen bakarra eskolan gertatzen da, hilabete luzeen ondoren arrakala linguistiko eta kulturalak areagotu dira, horregatik murgiltze ereduaren orokortzea eta euskal curriculumaren garapena beharrezkoak dira.
- **Curriculum egokitu.** Egoera berezi honetan are eta gehiago Curriculum malgutu, ikasleen behar eta erritmoetara egokitu, inor atzean utzi gabe, edukiaren transmisioan baino balore, printzipio eta kompetentzietan hezi, COVID19a bizi dugun mundua ulertu-eraldatzeko prestatuz.
- **Parte hartzea bermatu.** Nola bermatuko da hezkuntzaren funtzio soziala eta ezberdintasunen konpentsatzailea, hezkuntza-komunitateoi zein horiek bere baitan hartzen dituzten herri/auzoak ez bazaigu eskaintzen hausnarketa eta erabakietan parte hartzeko gunerik, elkarlanean jarduteko aukerarik?

Boga

ABENDUAK 1
MOBILIZAZIO EGUN
KOLORETSUA

Tokian toki, izan gaitezen hezkuntza-komunitateok eragile eta egin dituzagun gure herri/auzoak errealitate honen partaide, gure aldarrikapenen defentsara bilduz. Izan ere, hezkuntza ez da eskolaren ardura soilik gizar osoaren ardura baizik, egin dezagun herria ere hezitzaile. Mobilizazio egunean aipatutako aldarrikapenak gizarteratzearekin batera, bakoitzak bere egoera eta behar propioak gehitu ditzan animatzen ditugu ikastetxeak, toki bakoitzean erabakitako formatuan: mobilizazio klasikoak izan daitezke (manifestazioak, argazki erraldoiak) edota ideia berritzailak arakatu (lip dupak, antzerkiak, eskolak kalera ateratzea), goizeko jardunean atera gaitzeko kalera edota arratsaldekoan, leku bakoitzean eraginkorren ikusten duzun bezala. Ikus-entzun gaitzala Euskal Herriak eta egin irribarre hortzak erakusteko modu eraginkorra da eta!